

ttipi-ttapa

1992.eko Azaroak 26

98. zenbakia

dohain banatzen da



**Euskararen gazi-gozoak
MALERREKAN**

BAZTANEN STIHL KONTZESIONARIOA GU GARA ORAIN

ZATOZ!:

Ezagutu ez dituzun prezioak eta abantailak aurkituko dituzu
STIHL, munduko lehena

PULBERIZADORA



HESIMOSKAILUA



ZULOGAILUA



TRONTZAGAILUA



AROZ BERRI

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 581021 - IRURITA

non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/24 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Bortzirietan, "Euskara Batzordeen berriak" koadernillo berezia.
-
- 25 ELKARRIZKETA:** Esther Mugerza, Malerrekako Euskara Teknikaria: «euskararen egoera, kultura problema bat da».
Joxemanuel Irigoien
-
- 26 ERREPORTAIA:** Bertizko Konsortzioa, zonaldeko turismo eskeintza bultzatzeko asmoarekin osatu da.
Aitor Arozena
-
- 28 KIROLAK:** Lesaka eta Basaburua sub-20ean eta Sunbilla eta Bera emakumezkoetan txapeldun herri kiroletan.
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.300 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Juana Mari, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa/Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► **Azaroaren 28-29an**, Arantza, Narbar-te eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Abenduaren 3an**, Bera, Ituren eta F. Elizalde (Elizondo).

► **Abenduaren 5-6an**, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Abenduaren 7an**, Etxalar, Narbarte eta F. Elizalde (Elizondo).

► **Abenduaren 8an**, Bera, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

Deialdiak

► **Azaroaren 26an**, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Batzorde Erabakikorraren bilera.

► **ARANTZA**, abenduaren 10ean, Euskara batzordearen bilera.

Dantzaldiak

► **LESAKA**
Azaroaren 26an, Mikel Garikoitz eta AKE-LARRE taldearekin.

Abenduaren 6an, ARKAITZ taldearekin.

Abenduaren 7an, MINXORIAK taldearekin

Musika

► **ELIZONDO OSKORRI**
Abenduaren 4ean, jaialdia.

Antolatzailea: Baztango dantzariak.

► **LESAKA**
Abenduaren 5ean, rock kontzertua Atxaspi ostatuan, ZE ARRAIO eta BETI MUGAN taldeekin.

Feriak

► **LESAKA**, azaroaren 25-26an, herri kirol jaialdia, azienda feria, bertsolariak, aizkolarriak, pilota partiduak...

Bota bertsoa**Maribeltxa UNANUA**

(Baztango Bertso Eskola)

Gaia: Baztango Bertso Eskola**Neurria:** Zortziko haundia

Bortzirietan bertso eskola aspaldi omen zegoen inola ere ez zen gertatu zoritxarrez berdin hemen ez dakit nola eta nori esker baina jarri dute aurten horregatik aukera ona izanen dugu Baztanen.

Asteazkenero elkartzen gara asko ikasteko asmoz ta Bittorrekin bertso xarmantak egiten ditugu gogoz baina bakarrik hogeit hamar ikaslek osatzen dugu oraingoz bertsozalea bazara ere animatu eta zatoz.

AGENDA

Zozketak

► COU- LEKAROTZ

Elizondoko ferietan zozketatutako bildotsa 4.268 zenbakiari egokitu zaio. Doneztebeko ferietan zozketatutako bi lagunendako afaria, 3.118 zenbakiari.

Zinema

► DONEZTEBE

Azaroaren 28-29an, "Aqui el que no corre vuela". Abenduaren 5-6an, "La villa de los viernes". Abenduaren 7-8an "Thelma y Louise".

► LEITZA

Azaroaren 27an 10,30etan eta Azaroaren 29ean 8etan, "Sonámbulos". 29an 5etan "La familia Adams". Abenduaren 3an 5-8etan "Hook", Abenduaren 6an 5-8etan, "La pandilla". Abenduaren 8an 5-8etan "El Señor de las Bestias II".

Gastronomia

GAZTA eta ARANDANOEN GOZOA

Osagaiak 4 lagunendako:

"Pasta quebrada" egiteko, 115 gr. ogi irina, 60 gr. gurin, arraultza 1, kuxxare 1 azukre.

Osagai hauekin masa bat egin. Ordu bat hozgailuan eduki bola bat eginda eta



Amaia HUIZIK emana - Umore Ona GOIZUETA

gero moldean zabaldu. Estali arandanoen mer-

meladaz. Beste ontzi batetan osagarri hauek jarri: Filadelfia gazta 225 gr., litro laurden esnegain, 2 arraultz gorringo eta 4 kuxxara azukre. Osagai hauek bat egin esnegaina altxatuz. Gero bi arraultz zurin-gorringo altxa eta aurrekoarekin nahasi eta bota pasta eta arandanoen mermeladaren gainean.

Labean sartu 20 minutuz 180ºtan eta on egin.

Baserriko feria

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 4.860 pzta. Zerri gizona (95-100):141 pzta/kilo Zerramak: 80-90 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....525
1.koa.....500
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....535
1.koa.....510
2.koa.....480
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 23.000 eta idixkoak 33.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



• Diskoak,
• Metodoak,
• Musika-Tresnak,
• HI-FI soina,
• Soinu Profesionala,
• Ekipoen Alokairua...

11 galdera ilabur



Txomin Mindegia

Doneztebeko eskolako kontserjea

▶ Zeinekin sufritzen duk gehien, irakasle edo haurrekin? Denekin hemen.

▶ Eskolan jendearekin egon edo konponketak egin? Eskola ordutan jendearekin eta kanpo bertzela.

▶ Langilea edo solas aunitz egiten duena? Langilea nahiago.

▶ Maitasun mugatua ala dena ematekoa? Deustan ez dut mugarik izan nahi.

▶ Soldaduxka ala insumisioa? Insumisioa nahiz eta arrazoi zehatzik ez egon.

▶ Hippia ala korbata duena? Hippia jendea baina arropa bezala, korbata.

▶ Feminismo ala matxismoa? Ez bata ez bertzea.

▶ Bigotea ala bizarra? Une honetan bigotea eta patilak

▶ Eskubaloia ala mendia? Mendia.

▶ Romantikoa ala realista? Erromantiko galdua.

▶ Bakea armen bidez ala solastuz? Hori etsaiaren arabera.

URGA

Nikita Mijalkov
Frantzia-Rusia
1992

Mongolia inguruko artzaien bizitza kontatzen da pelikula honetan. Txina eta Rusia arteko muga horretan, bizia lasaia da, paisai ederren artean, baina ez da alde batera uzten modernotasuna eta progresoa; nonahi preserbatiboak, telebista, "Rambo"n kartelak... agertzen dira. Egunez artzaien bizia eta gauzez diskoteka. Zaldien ondoan, kotoiak ziztu bizian ibiltzen diren lekuko istorioak kontatzen duen pelikula. Politika gaia ere sumatzen da, Gorbatxov telebistan agertzen denean. Beraz, bertako kultura, kanpoko kulturekin nahasten da, baina hau umorez hartzen da. Adibidez, artzai



tzen da, Gorbatxov telebistan agertzen denean.

Beraz, bertako kultura, kanpoko kulturekin nahasten da, baina hau umorez hartzen da. Adibidez, artzai

batan alabak "España cañi" pasodoblea akordeiarekin jotzen du. Bi kultur hauen arteko nahasketak pelikulan zehar ere nabari da: hasieran dokumental baten

itxura badu ere, gero bertako artzaia eta kanpoko kamionero baten arteko adiskidetasuna kontatzen da, bi kulturak aztertuz.

JOXE

❖ Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA
KULTUR ETXEETAKO
LIBURUTEGIAK OSATZEKO
BEHAR DIREN BILDUMAK

AMETS LIBURUAK

☎ 63 12 67 - BERA

EUSKARA BATZORDEEN Berriak

Argitaratzailea: Batzordeak Euskara Mankomunitatea. Aranzoko Herriko Etxea, 31790 Arantzaz, Tfnoa: 634125. Mankomunitatearen webgunea: www.mankomunitatea.net

Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da. Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da. Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da.

Erakusketan - TAILER didaktikoa



Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da. Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da. Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da.

Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da. Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da. Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da.

Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da. Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da. Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da.

Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da. Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da. Erakusketan erabiltzeko erabilgarria da.

"Euskara Batzordeen Berriak" izena duen gehigarria doakizue ale honekin batera Bortzirietan bizi zaretenoi. Gehigarri honen argitaratzailea Bortzirietako Euskara Mankomunitatea da eta oraingo hau urte honetako hirugarren zenbakia dugu. Lau orrialdetan zehar, elkarrizketa, errikiak, erreseñak, berriak... aurkituko dituzu.


Alkateek errepideen egoera eta industri krisia salatu dute

Nafarroako Gobernuko hainbat kontseilariekin biltzea eskatu dute



Zonaldeko alkateak egindako bilera errepi-deak duten egoera kax-karra eta industriaren krisi sakona salatu zuten. Hau dela eta, Lopez Borderias, Garraio eta Komunikabi-de kontseilariarekin bil-tzeko asmoa agertu dute, N-121 karretera eta TB errepetidorearen aferak azaltzeko. Eraberean, In-dustria eta Lan kontseila-riari zonaldeko industri

poligonoen plangintza zertan den "idatziz" jaki-naraztea eta beraiekin le-henbaitlehen biltzea es-katu diote alkateek. Alkaiagako industri-aldearen atzerapenarekin ere kezkatuak daudelarik. Azkenik, Ongizate So-zialeko zuzendariarekin ere bildu nahi dute, Adin-tuei buruzko estudioa ze-hazteko eta pisu tutelatuak martxan jartzeko.



Lesakako feriek bukaera emanen diote aurtengo feria egitarauari. Elizondon eta Donezteben bezala, aziendak izanen dira nagusi Lesakako karrietan, 1499an erregeak emandako eskubideari go-gor eutsiz

INFORMAZIOA:

- 📎 Nominak
- 📎 Aseguro Sozialak
- 📎 Lan-kontratu bonifikatuak
- 📎 Enpresa berrien sortzea
- 📎 Diru-laguntzak
- 📎 Errenta Deklarazioak
- 📎 Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



BURDINAREN MARTXA ETA ERREPRESIOA

Urriaren 27an, Burdinaren Ibilbi-dearen alde (Marcha de hierro), Lekartzeko Baztan Harana institutoko ikasleok 2 orduko paroa egin genuen, gure bailararen etorkizuna salatu asmoz. Bi ordu horietan 300 bat ikasle Elizondoko bidera atera ginen, ordu laurden inguruz errepidea moztuz, kotxe ilara handi xamarrik sortuz.

Bidea jarraituaz

Elizondora abiatu ginen, oihu batzu batez estatu espainoleko "segurtasun" indarrak agertu zirelarik, 5 patrol eta bi motorretan euren sirena eta guzi.

Bidea egiten saiatu ziren, ikasleoi bultzatuz eta "hijos de puta", "cabrones"... bezalako irainak jaurtikiaz, argi geratu delarik "guardia zibilen" bide bakarra errepresioa dela.

Gure helburua errepresio honekin bukatzea da, eta jen-

deak jakin ditzan gertakizun hauen berri, gure gurasoen lanpostuak defenditzen ari bait ginen.



Baztan Harana Institutoko ikasleak

SERVITUR, NIRI EUSKARAZ MESEDEZ

Dakizuenez, Baztan-Bidasoa mailan "Turismoko" kontorzio bat osatzen ari da turismoa gehitzeko asmoz. Horretarako, hotel, jatetxe, ostatu, denda etabarraren elkarteak sortzen

ari dira (kulturakoak zer?).

Horra hor nire harridura bilera horietarako deialdia egin zidatenean erdarahutsez idatzitako eskutitza hartu nuen. Ez dakit non goak diren Servitur enpresako arduradunak gure hizkuntzari horrelako mesprezua egiteko, baina garbi adierazten diet Baztan-Bidasoako jende askok gure kultur eta hizkuntzari denbora eta lan aunitz ematen ari garela, "turismoarendako" folklo-

re hutsa ez bihurtzeko.

Harritzen naiz are gehiago nola Baztan-Bidasoako udalek ez dioten "toke" bat eman gure hizkuntzari egiten ari zaionten irriagatik, uste dut gaur egun euskararekiko Udalen norabidea eta lana nahiko ona dela eta bide horretan jarraitzea animatzen diet, baina Serviturekoei erran Nafarroako xoko honetan hizkuntza bat daukagula eta hori ez ahazteko.

Euskaltzale bat

VII. GURE TXOKOA IPUIN SARIKETA

Bidasoa eta Baztan inguruan bizi diren idazleentzat.

Oinarriak:

- 1.- 16 Ute beteak izan beharko du.
- 2.- Lanak 3 orri baino gehiagokoak izan dire eta makinaz idatziak.
- 3.- Edozein gai euskaraz idatzia, argitaratu gabea, eta sariketara bidaltzen duenak asmatua, onartuko da.
- 4.- Lan guztiak, egilearen izen eta abizena, zuzenbidea, telefonoa beste orritxo batean idatziak izan beharko dituzte.
- 5.- Lanak Abenduaren 21a baino lehen zuzenbide honetara bidaliko dira: GURE TXOKOA - KULTUR SAILA EZTEGARARA - BERA (NAFARROA)
- 6.- Saria oroigarria eta 30.000 Pztakoa izanen da eta Epaimahaiak aipamen berezia eman dezake.
- 7.- Sari banaketa lamotenean datorren Urtarrilaren 10ean eginen da (eguerdiko 12etan).



HAUR IPUINEN XXI. BERA SARIKETA

- 1.- Bidasoako Bortziriak ekualdean bizi direnentzat antolatzen da.
- 2.- Hiru maila izanen dira: A- 9 urte arte, B- 10 eta 11 urtekoak eta D- 12 urtetik 16tara.
- 3.- Edozein gai euskaraz idatzia, argitaratu gabea, eta sariketara bidaltzen duenak asmatua onartuko da.
- 4.- Lanak, orri bat baino gehiagokoak, eta hiru orri baino guttiagokoak izan beharko dira, eskuz edo makinaz idatziak.
- 5.- Idazle bakoitzak bi ipuin bidaltzen ahal ditu.
- 6.- Lan guztiak, egilearen izen eta abizenak, zuzenbidea, telefonoa eta adina beste orritxo batean idatziak izan beharko dituzte.
- 7.- Lanak estalki batean sartuta GURE TXOKOArako Kultur saila BERA. Abenduaren 21a baino lehen bidali behar.
- 8.- Maila bakoitzak sari bat izanen du: Oroigarria eta liburu mordo bat.
- 9.- Sari banaketa Urtarrilaren 10ean eguerdiko 12etan izanen da (Gure Txokoaren egoitzan).

Ibardingo depuradora egiten hasiak dira

Bertzalde, su-hiltzaileen ikastaroak ere martxan daude

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Depuradora honen egitekoa, ur-zikinetan solidoak eta likidoak bereiztearena izanen da. NILSA enpresak egiten ari ditu obrak eta guzira hameka milioi inguru kostako da. Lanak, proiektuaren araberak, hiru hilabetetan burutuak egotea espero da.

Larunbatetan antzerki ikastaroa

Irungo 'Bai' Taldearen eskutik larunbatero goizeko 10etatik 1etara antzerki ikastaroa burutuko da Kultur Etxean. Dagoeneko zenbait gazte hasiak dira eta oraindik norbait gehiagok apuntatu nahiko balu larunbatean goizeko 10etan Kultur Etxean egin daitekeela. Aipatu baita, "Bai" taldeak Kultur Etxean egiten dituela bere entsaioak eta abenduaren 10ean eskeiniko duela bere lana.



Alberto Inurrategi egon zen azaroaren 19an Kultur Etxean, Everest-era egindako espedizioaren diapositibak erakusten.

Kultur aktibitateak eskolen artean

Azkeneko hiru urte hauetan egin den modura, aurtengoa ere Berako hiru ikastetxeen artean eskolaz kanpoko aktibitateak martxan daude. Lehen hiru hilabete hauetan, Pello Añorga Ipuin kontalaria, Everest-eko espedizioaren diapositibak eta Pailazoak.



Carmen Barrena da Berako Liburutegiko liburuzaina

W ttipi-flash

□ Su egurra eskatu nahi duenak abenduaren 20a arte du plazoa. Eskariak dauden loteak baino gehiago balira, sortean eginen dira.

□ Udalbatzak bere elkartasuna adierazi du Arangurengo Zabortegiaren kontra egoteagatik abenduaren 14ean epaituak izanen diren 22 lagunekin, horien artean Arangurengo alkatea bera eta zenbait kontzejal eta herritar.

□ Bertizko Turismo Konsortzioa bultzatzea erabaki du Udalbatzak inguruko bertze hainbat udalen modura, eta bide horretan, Osaketa Plana eta Bideragarritasun Estudioak burutzeko Berako Udalarari dagozkion 806.860 pztak ordaintzea erabaki du.

BORTZIRI
ASISTENZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LESAKA

Bortzirietako Feriak, hilaren 25 eta 26an ospatuko dira

Merkatu eguneko herri kirol ikuskizuna eta Feria eguneko azienda lehiaketa aipagarri

AITOR AROZENA

Hilaren 25 eta 26an burutuko dira Lesakan Bortzirietako feriak. As-teazkenean, Lesaka eta Arantzako Herri Kirol taldeen arteko lehia izanen da arratsaldeko 6,30etan, emakumezkoetan zein gizonetzkoetan. Ondoren, Ajoarriero III. Lehiaketa egingen da eta Lesakako trikitixaren emanaldia.

Ortzegunean berriz, ohizko azienda lehiaketa izanen da eta ez dira faltatuko, noski, saltzaile postuak. 11,30etan Larretxea eta Mindegia aizkolarien arteko norgehiagoka eta eguerdian, Lizaso eta Euzkitze bertsolariak arituko dira kioskoan. Ondoren, azienda lehiaketaren sari banaketa. Arratsaldez pilota partiduak izanen dira eta tartean bertso saioa. Arratseko musika, Mikel Garikoitz eta Akelarre taldeak paratuko dute.



Hainbat herrietako bestetan parte hartu dute Tantirumairu dantza taldeko neska-mutilak

ARTXIBOA

Urteko balantze positiboa azaldu du Tantirumairu dantza taldeak

Tantirumairu dantza taldeak "aro berri baten hasieratzat" jo du 1991-92 ikasturtea, taldearen autonomi eta autofinantziazioaz gain, bi arduradunen eta hiru irakasleen arteko elkar zuzendaritza bat lortu bait dute. Horretaz gain, txaranga eta txistulari taldea ere osatu dira, "dantzari-

kin batera Tantirumairu dantza taldearen partaideak direnak".

Urtean zehar, hainbat herrietako bestetan izan da Tantirumairu eta azken ekitaldiak, "Arabako Umeen Euskal Jaian" Nafarroa ordezkatzeko eta Dantzari Txiki Egunean parte hartzea izan dira.

ttiipi-flash

□ Santiago Irigoien txistulariaren omenaldirako entsaioak larunbatero arratsaldeko 4etan izanen dira Irain eskolan.

□ Azken hilabeteotan eman diren kontrolak eta herrian bertan egindako erregistro eta katxeoen aurka HBk aurkeztutako mozioa ez zen onartu PNVren aurkako botoarekin eta HB eta EAren aldekoarekin. Halere, guardia-zibilak herrian egindako kontrolari buruz Gobernu Zibilari informazioa eskatzea erabaki zen ahobatez.

□ Herri Kirol taldea bikain aritu zen Elizondoko finalean, mutilak frogatik konbinatuan lehen postua lortuz eta sokatiran hirugarrena. Neskak ere ederki aritu ziren.

□ Arrano elkarteak afari-besta antolatu du abenduaren 5erako.

LORA DENDA

TXIRULA
 Bittiria LESAKA
Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza
 Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
 Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA
FONDA
 Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

ONIN
Agentzia
 Albistur 53
 Tfnoa: 637359
 LESAKA

- ☛ Aseguruak eta kontabilitatea
- ☛ Errenta eta IVA deklarazioak
- ☛ Eskrituren likidazioa
- ☛ Edozein aferetarako ofizina
- ☛ Zunzarren-en kolaboratzaileak

EROSLE
 LESAKA
 Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena
zugandik
hurbilago
 Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

Herriko Etxeko jatetxearen kontratua 1993an akautuko da

Udalak, bertzalde, Zahar Etxeko zerbitzuaren xehetasunak igorri ditu etxeetara

PELLO APEZETXEA

Heldu den martxoaren 31a, izanen da hogeituro urte-tako errentamenduaren azken eguna. Etxean zenbait aldaketa burutzea pentsatzen du Udalak, errate baterako, Zabor eta Zerbitzu Sozialeko Mankomunitateen bulegoak lehenbiziko solairuan paratzea. Iduri duenez, herriko gauza gehienetarako bigarren solairuraino joanez segituko dugu.

Udalak Zahar Etxeko zerbitzuaren xehetasunak eman ditu eta etxeetara igorritako paperean azaldu digu nor sartzen ahal den, zein kondizionetan egonen den, nor den etxea-



Txistulariek entsaiotan segitzen dute. Udan eta urteko besta egun berezietan sumatzen dira karrikan, baina horretarako urtean barrena ikasten saiatu beharra daukate, astero egun batez.

ren ardura berezia duena...

Guraso elkarteak batzordea edo junta berritu du. Arantxa Mikelestoren eta Gema Salaberriak

utzi eta, beraien orde, honako hauek izan dira aukuratuak: Jose Mari Maia, Anabel Goienetxe eta M. Eugenia Ibarra.

Irakasle berriak

Bortzgarren eta seigarren mailakoen irakaslea Marian dugu, Irunen bizi eta bertatik egunero joan etorri egiten duena. Azuzena, berriz, bizkaitarra da, eta eskolaurreko haur tiki-ekin ari da, Junkalekin batera, goizez Lesakan egiten dituen bi ordu terdi ez gainerakoetan; gauetarako Lesakara bilduz.

ETB hobeki ikusiko

Hori da, behinipehin, Lesakako Udaletik igorri duten berria, Euskal Telebistak berak Frainen repetidore berria paratuko duela, señale hobea hartuko duena eta Bortzirietara banatu.

LAINO
ABENDUAN
%30KO DESKUENTOAK
 San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

BEKO ERROTA
 Lore eta landareak
 Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
 LESAKA

Deñe
 LENTZERIA
 MERTZERIA
 Tfnoa.: 62 75 14
 Beheko Plaza 8, LESAKA

GOZOTEGI-JAIONE

 Itzea 3, 630786 - BERA

FOTO MENA
 ELIZONDO
Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa
 Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40 ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak **ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu

KOXXKONTA
Sagardotegia Erretegia
 Ezkontza, bataio, bileratarako leku egokia (200 pertsona)
 Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

ARRANO

OSTATUA
 Legarrea - LESAKA

Bi langile kontratatu ditu Udalak

Eskola gibelego parkea garbitzen eman dute denborarik gehiena

OSKAR TXOPERENA

Bi langile gazte hartu ditu Udalak herri inguruan zenbait obra eta lan egiteko: Juan Mari Arburua eta Miguel Javier Hita. Eskola gibelego parkean egiten ari direnaz aparte, bertze gauza batzuk egin badituzte ere, horretan eman dituzte egunik gehienak. Egia erran, bazuen astindualdi baten beharra eskolako jolastokiak, herriko zaborleku bihurtua bait zen azken urteotan. Bide batez, aipatu nahi nuke gasoleozko kalefaktorea paratu berria dutela eskolan, egurrazkoarekin karrera atera ezinik edo. Irakasleek erran dutenez, gustua ematen omen du orain goizetan



Begira zeinen polita atera zitzaigun etxetik Mari Loli Sein ezkontzera zihoanean. Zorionak!

Arg.: OSKAR

eskolara sartzea.

Eskolako bilera

Eskolako gaiekin bukatzeko, erran bakarrik azaroaren 16ean izandu

zela irakasle eta gurasoen arteko lehendabiziko bilera, gai hauekin: Urteko egutegia gurasoei aurkeztu, testuliburuak eta mate-

riala erosteko haur bakoitzeko ordaindu beharra (3.500 pzta) eta bortz eguneko epea (azaroaren 20a arte) guraso hautagaiak aurkezteko eskola kontseilurik berrirako. Hautaketa abenduaren 10ean izanenda (bi guraso).

Zerri puxken analisia

Hauexek izanen dira aurtengo neguan zerri puxkak analizatzeko egunak eta orduak: azaroan eta martxoan Lesakako Osasun zentroan astelehenetik ortzegunera 9etatik 12etara. Abenduan, hilbeltzan eta otsailan berriz, Herriko Etxean astearte eta ortzegunetan 12etan.

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**

ZALAINJATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua



Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 **LESAKA**

J. M. ANDUEZA IRIARTE
Instalazio elektrikoak

- *Sua itzaltzeko tresna guztiak*
 - Mangerak
 - Extintoreak
 - Ateak: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...
- *Alarmak: Suarenak, lapurretarenak...*

Askain Karrika 12 ☎ 630854 - **BERA**

Belateko errepidea hobetzea eskatu du Udalak

Baztango Udalaren eskariarekin bat eginez

MIRARI eta MARTA

Belaten gertatzen diren istripu pila nolabait konpontzearen Udalak Baztangoarekin bat eginez ahobatez onartu du Nafarroako Gobernuari Belateko jeitsierako errepidean emergentziako pista aproposak eta kamionentzat aparkaleku berezi batzuek egitea eskatzea.

Larre hobetze lanak

Larre hobekuntzarako lanak eginen dituzte: igel-terro eta ura ekartzea, Juan Aginagak; burdinaren egin beharrak Jose Agustin Irigoien; larrea garbitu eta hazia erein, Pello Larretxea eta Javier Etxeparek.



Hogei urtetik behitiko mutilak hirugarrenak froga konbinatuan

ZALDUA

Herri Kirolen emaitzak

Azaroaren 7an Elizondon eginiko finalean hogei urtetik behitiko mutil taldeak honako emaitzak lortu zituen: sokatiran bortzgarren postua eta froga konbinatuan hirugarrena. Neskak, berriz, ezin izan zuten finalerako klasifikatu.

Herri Kirolekin jarraituz, azaroaren 25ean, arratsaldeko 6.30etan Lesaka eta Arantzako Herri Kirol taldeen arteko norgehiagoka eginen da Lesakan, bertako feriak direla eta. Sokatiran eta froga konbinatuan neurtuko dituzte beraien indarrak.

Cederna-Garalur

Udalak ahobatez onartu du Cederna-Garalur elkartearen sartu eta eskualdetako kontratatzen den agentearen gastuetan parte hartzea.

ETBko errepetidorearen gastuak

ETBko zuzendaritzari Otsarrako errepetidorearen mantenimenduko gastuak bere gain har ditzala eskatzen dio Udalak.

MANOLO TABERNA

Edari Banatzailea


Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA



ATERPE
jateixea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA



ERAKUSKETA:
BEREAU ETXEA
LESAKA NAFARROA
Telf: (948) 637266

BORTZIRI

«UNSION ANAIK»

SUKALDERAKO ALTZARIAK

SARA

Pariseko auziaren ondorio harrigarria

Hainbat urtetako gartzela zigorra ezarri die bortz euskaldunei, hauen artean Xabi saratarra

JACQUELINE eta MIXEL

Azaroaren 2an hasi eta Jondoni Martine bezperan bukatu da Pariseko epaitegian bortz gazte euskaldunen auzia. Bortz mutil hauek, Iparretarrak (IK) erakundeari doazkion ekintzentzat akusatuak ziren.

Auzitegi berezia Auzitegi berezi baten aintzinean

agertzen ziren eta hunek gertakariei baizik ez du so egin, Euskal Herriko arren gurak bazterrerat utziz eta lehen lehenik akusatueri euskararen erabilpena debekatuz. Ginz-

berger prokuradoreak erran duenez euskara bigarren heineko mintzairetan ezarri behar zela bakarrik. Hori ez ote da ere Euskal Herriaren ukatzeko molde bat?

Kondenu gogorrak Ez zen dudarik hastapenetik ondorioz kondenu gogorrak izanen zirela. Bortz lagun horietarik bat herritarra dugu, Xabi Labeguerie eta hunek bortz urteren zigorra ukan du bainan lau "sursis"-arekin.

Jada urte bat abantxu egina duela ikusiz, gure artean dugu berriro ere.

Oraidanik, ongi etorria Xabi.



Aski ezaguna da Xabi mugaz bi aldeetan: Alkaiagan hazia eta egun, Berako rugby taldean entrena-tzaile lanak betetzen ditu.

Argazkia: KARMELE

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Hattin Guendiaín

Tfnoa: 59 24 25 19
64310 SARA



ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIAK

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAIA ALTERNATIBOAK

ADRIANA KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUIN

BIDAIA AGENTZIA
G.A.T. 2.015

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten baduzue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

Eskolako liburutegiak arduraduna izanen du

Froga konbinatuetako finalean, bertzalde, nesken taldea txapeldun suertatu zen Elizondon

IOSUNE eta IXABEL

Liburutegiaren ardura-dun lanpostua subastan ateri du udalak. Kontratu hiru hilabetetarako izanen da eta asteleheneretik ortzira bitarte, arratsaldeko 5etatik 7etara, liburutegia zabalik edukiko da.

Maastricht-iburuzko akordioa

HBren proposamena ahobatez onartu zuen Udaltzakoak. Horren arabera, tratatu horrek gure gain izanen duen eraginaz ja-

Nesken taldea Nafarroako txapelduna suertatu zen Elizondoko finalean. Honekin 4 dira Sunbillako Herri Kirol taldeak aurten lortu dituen txapelak.
Arg. ZALDUA



betzeko herriari informazioa ematea eskatzen zaio

Madrideko Gobernuari, eta ondotik, herriaren iritzia

erreferendum baten bitartez agertzea.

Donamariako Benta-ko ikastaroek izugarrizko arrakasta

Eguberri bitarte, erlajazio ikastaroa eta Komunikazio-afektibitatekoa burutzen ari dira

DONAMARIA

"Hain propaganda guti egin eta hainbertze jende etortzeak, gai hauen inguruan behar haundia dagoela argi erakusten du". Halaxe dio Elixabet Badiolak, ikastaro hauen antolatzaile eta Erlajazio ikastaroko monitorea denak. 'Komunikazioa eta Afectibitate' izena duen ikastaroaren monitorea berriz, Marilen Zarraluki eta Toña Roa dira eta azaroaren lehen astean hasi eta 6 astez, astelehenero biltzen dira Donamariako Bentan.



Zonako 26 lagun biltzen dira astero Donamariako Benta Erlajazio eta Komunikazio-afektibitate ikastaroetan
Arg. TXEMA

Elisabet-ek erran digunez, ikastaro hauen hel-

burua "norberaren garapena eta pertsona arteko

harremanak lantzea" litzateke.

Bertako artisautza erakusketan

Abenduko lehen astetan bertako artisautzaren erakusketa eta salmenta egingen da Donamariako Bentan. Honekin batera, datozen "zubiak" probex-tuz bertako produktoekin osatutako menuak eskeini-ko dira leku berean.

Modu honetara, bertako eskulangileei erakustoki iraunkor bat eskeini nahi zaie

DONEZTEBE

Musika Eskolako irakasleak aukeratuak

Azkarreta etxea Herriko Etxearena izatera pasa daiteke

TXEMA ALDABE

Aurtengo ikasturterako Itziar Perurena eta Marta Indart doneztebarrak izanen dira irakasle berriak. Gainontzeko bortz irakasleak iazkoak dire, Garbiñe Leiza, Amaia Irurzun, Maria Teresa Sancho, Cristina Unshion eta Javier Igoa, hain zuzen ere.

Ikasleek aurten hilabeteen asignatura bakoitzeko ordaindu beharrekoa 3.200 eta 4.300 pezeten artean dago, beti ere maila eta musika-tresnaren arabera. Koralean parte hartzen dutenak, berriz, 650 pzta.



Itziar Perurena eta Marta Indart dira Musika Eskolako irakasleak

Aurtengoan, Nafarroako Gobernuak, aldi berean solfeo eta musika-tresnaren bat jotzera matrikulatzen direnentzako dirulaguntza



emanen du. Solfeo hutsa edo musika-tresna bereziki ikasten dutenendako, berriz, ez dago dirulaguntzarik.

ttipi-flash

□ 350 pzta balioko du aurten zine sarrerak.

□ Patxi Mindegiak Juan Jose Lopez, Nafarroako 2. mailako txapel-dunari bota dio desafioa. Lopez-ek onartuko balu, 16 enbor moztea izanen litzateke lana.

□ Ferietan eguraldi majoa, baina ez sobera ona. Asto aunitz salgai baino gutti saldutakoak. Kartaristek berea egin zuten. Kanpotik ekarritako nekazal tresneriarik ez zen apenas ikusi.

ELGORRIAGA


Balnearioari buruzko lehen ikerketa, aldekoa da

TXEMA ALDABE

Segundu batean 8 litro ur ateratzeko gaitasuna du. Emaizta hori agertu da egin den lehenbiziko ikerketan. Baina ur kopuru hau ateraz gero erortzeko arriskua du, eta horrexegatik, segundu 3 litro ateratzea egokiena dela aztertu dute. 3 litro hauetatik kilo bat ga-

tza ateratzen da. Orain bigarren ikerketa bat egingen da, inguruan zer egin eta nola hornitu errentagarria izateko, hau da, etxebizitzak, gelak, etab...

□ Dibujo eta pintura ikastaroa hasi zuten azaroaren 10ean hamairu gaztek, Camino Eseberri Elizondoko irakaslearekin.



Pintura ikastaroan apuntatzeko garaiz dago oraindik jendea



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



ARROPA ETA OPARIDENDA

Tfnoa: 451540

Mercaderes 9

DONEZTEBE

EUSKARA BATZORDEEN

Berriak

Bortzirietako

Euskara

Mankomunitatearen

Argitalpena

Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-ttapa

Irailean argitaratutako alean, orduntxe hasi berriak genituen bi kanpainen berri ematen genizuen. Dagoeneko biak bukatu dira eta balantzea egiteko ordua da.

Gurasoei zuzenduriko **Euskararen Transmisio Kanpainari** dagokionez, lau talde izanen ditugu aurtengurako, Lesaka, Bera eta Etxalarren. Hau pozgarria izanik ere, izanen dira oraindik euskara ikasi edo hobetu behar edo nahiko duten gurasoak, beraz, hurrengoan aukera ez galdu.

Euskaltegiaren matrikulazioari dagokionez, urrian hasi dira aurtengo ikasle animosoak berriz ere jo ta ke euskararekin. Aipatu egin behar da Bera eta Lesakaren arteko matrikula kopuruaren joera ezberdinak.

Beratarrak heldu den urterako gehixeago animatu beharko ditugu, Lesakarrak, aldiz, aurtengoa bide ona hartu dute.

Bertzalde, **azaro eta abenduan baditugu zenbait kultur ekintza** Euskara Batzordeek antolatutak. **Lesakako** Euskara Batzordeak azaroan antolatu zuen **marrakzi bizi-dunen erakusketa-taile-**

erakusketa - TAILER didaktikoa
Marrakzi Bizidunak egiteko prozesua

SUZTI HAU GIDIAN IDATZITA DAGO.

... BAI, BAINA NIRE ITXURA ZER! ... SUDUR HAU EZ ZAIT BATERE GUSTATZEN...

ANTOLATZAILEA: LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA
AZAROAREN: 9tik 13ra
LEKUA: LESAKAKO IRAIN ESKOLA
ORDUAK: 9 etatik 5 etara eta 6 etatik 8 arte
LAGUNTZEN DU: NAFARROAKO GOBERNUA
HIZKUNTZ POLITIKARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

rra. Berako Lurraren Eguenean, **Berako** Euskara Batzordeak giroa alaitzen laguntzeko **karrika-anima-zioa** ekarri zuen.

Abenduaren 20an, arratsaldeko 4etan, Berako Euskara Batzordeak antolatutako **bertso saioa** izanen dugu.

Etxalarren, abenduaren 11an **Koldo Amestoi ipuin kontalariaren** emanaldia, eta 18an **Inurrategi anaiek Everest mendira** egindako igoera azalduko digute diapositiba eta guzti. Azken hauek arratsaldeko 7etan.


Arantza eta Igantzin ere izanen da, seguru aski, ekintzaren bat baina oraingoz zehaztu ez direnez ezin dizuegu hauen berri eman. Beraz, erne ibili ekitaldi hauek gozatzeko.

Bertzalde, gehigarri honen barruan heldu den pegatinarekin, gure artean hagitz zabaldua dagoen ohitura batekin bukatu nahi dugu: telefonoa hartzerakoan beti erderaz galde-tzearena, hain zuzen. Hagitz erreza denez, eta euskara gehiago erabiltzen lagunduko duenez, telefonoan pegatina paratu eta lehendabiziko hitza euskaraz erratera animatzen zaituztegu.

Berriak

Pilar Txueka: «Aurrera egiteko denon ahaleginak behar dira»

Euskararen normalkuntza prozesuan garrantzi bizikoa suertatzen da administrazio mailan egiten den lana eta ematen diren urratsak. Herri mailan ere, zalantzarik gabe, administrazioa euskalduntzeak berebiziko garrantzia du eta Udaletan lan handia egin behar da. Bortzirietako Udaletan euskarak bizi duen egoeraren berri jakiteko, Nafarroako hainbat herritan aritu ondoren, gaur egun Berako Udalaren eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen idazkaria den Pilar Txuekarengana jo dugu, egoera hagitz hurbiletik ezagutzen duen pertsona baten eritzia jaso asmoz.



DAVID ANAUT Arantza, Igantzi eta Beran aritu zara, Baita Bortzirietako Euskara Mankomunitatean ere, Bortzirietako Udaletan euskararekiko azken urteotan gertatu den bilakaera nolako izan da?

Hemen lanean hasi nintzenean oraindik «Ley del Vasquense» delakoa ez zegoen onartua. Eta onartu ondoren saiatu da gutxienez zerbait betetzen, nahiz eta egin duena aski ez izan.

Bestalde, Udaltako egoerak hagitz desberdinak dira eta ezin da erran ia bilakaera ona edo txarra izan den; pentsatzen dut zerbait aurreratuta dela baina nire ustez ez behar zena.

Euskara eta Udalaren egoera ikusirik, etorkizuna nola ikusten duzu?

Aurrez erran behar dut oso inpazientea naizela eta gauzak berehala lortzea gustatzen zaidala. Baina halere, Udaltako euskararekiko egoera nahiko zaila

iduritzen zait, eta aurrera egiteko denon ahaleginak behar dira. Eta 'denon' erraten dudanean, langile eta Udalak sartzen ditut.

Zer urrats eman beharko lirateke Bortzirietan euskararen egoera normalizatzeko?

Hori erantzuteko, ez dut ikusten nire burua gauza denik, ez bait naiz soziolinguista. Baina nire esperientziaren arabera saiatuko naiz zerbait erantzuten:

Alde batetik, nire ustez Udalek Udale-

tako euskararen normalizazioa, bederen bertze edozein arazo bat bezala hartu behar dute.

Udaletxeetan euskararen normalizazioa aurrera eramateko langileok Udalenerabakiak edo arauteria behar ditugu, haiek herriaren ordezkariak bait dira eta haiek dira erabaki behar dutenak normalizazioa nola burutu. Oraingoz bakarrik «Ley del Vasquense» delakoa dugu eta jakina denez ez da oso lagungarria, horretarako agian orain prestatzen ari diren euskararen ordenantzek asko lagunduko digute.

Ordenantzez gain, langileen berziklapenarekin jarraitu behar da eta noski, langile berriak aukeratzeko euskara derrigorrezko baldintza izan dadila eskatu behar da. Baita Nafar Gobernuako langileak ere, Euskara Mankomunitateak esijitu duen bezala.

Bukatzeke, edozein zerbitzu berri jartzen denean, ahalegin handiak egin behar dira langile eta Udalaren aldetik.

Berriak

Txaloketa.....

Salaketa.....

Liburuak.....



Zerbitzu Publi-koetan lanean aritzeko oinarriko baldintzen artean euskara esijitzen duten Udalak. Azken

finean, modu honetan administrazioarekin euskaraz egin nahi dutenei eskubide hori errespetatuko zaie.

Hala ere zenbaitean udalek eta gainerako administrazioek eskubide hori ez dute kontutan hartzen. Horrela Le-

geak euskaldunoi airtortzen dizkigun eskubideak alde batera uzten dituzte.

Herriko Plaza.....

16urte bitarteko Hezkuntza Erreformaz ari behar dut. 3 urratsetan sailkatzen da.

A- Haur Hezkuntza. 0 eta 6 urte bitarteko umeentzat. Ez da derrigorrezkoa.

B- Lehen Hezkuntza. 6 eta 12 urte bitartekoak.

D- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 12 eta 16 urte bitartekoak.

Zenbait aldaketa:

- Derrigorrezko Hezkuntza 6tik 16 urtetara izanen da.

- Administrazioak oinarriko helburuak paratzen ditu eta



JOSERRA AMOROS OSKOZ

Arantzan Irakasle

Hezkuntza Erreforma

irakasle taldeei dagokie kurrikulua zehaztu eta osatzea ikasleen ezaugarri eta ikastetxeen inguru sozioekonomikoei egokitzuz.

- Ikaskuntzak adierazgarria eta motibagarria behar du izan, beraz, ikaskun-

tza mekanikoa eta memoristikoa baztertzen da.

- Ebaluzioa etengabea, hezitzailea eta pertsonalizatua izanen da.

- Euskararen tratamenduak ez du aldatarik, beraz, ikastetxe elebidune-

tan orain arteko hezkuntza ereduak jarraituko dute.

- Atzerriko hezkuntzaren irakaskuntza 8 urtetan hasiko da.

- Arte eta Gorputz Heziketak garrantzia haundiagoa hartzen dute.

PURTZIL HALAKOA, ZENBAT?

Gipuzkoako Foru Aldundia

«Purtzil halakoa zenbat?»

Egilea: Mikel Sarriegi

Argitaratzen du: Gipuzkoako Foru Aldundia

77 orr., 660 pztz.

Aztia nork ordezkatu duen erabakitzekeo zenbat frogaganditu behar dituzte «iraintxoek»ek. Izaki mihigaizto hauen bizimodua euskara garden eta iaioaz kontaktzen digu ipuin honek.

Koloreak euskal usuarioan

Patziku Perurena

SAIO PAPERAKA

«Koloreak euskal usuarioan»

Egilea: Patziku Perurena
Argitaratzen du: Erein-ek

257 orr., 1.600 pztz.

Koloreak euskal tradizioan izan duen erabilpena azaltzen da liburuan, hainbat interpretazio eginez. Bilketa lan interesgarria, baina interpretazioa agertzen den neurrian eztabaidagai.

Berriak

Bera eta Lesakan
«Euskararen erabileraren aldeko akordioa»
sinatu duten zerbitzuak

BERA

Jatetxeak

Ansonea, Euskalduna, Zalain

Ostatuak

Botxo, Ekaitza, Errekalde, Fidel, Malet, Maritxu, Matxiarena, Txokoa, Zizka, Zubieta

Banketxeak

Iruñako Aurrezki Kutxa Munizipala, Baneito, BBV, Banco Central-Hispano Americano, Lankide Aurrezki Kutxa, Nafarroako Aurrezki Kutxa, Vasconia

Arropa Dendak

Arkume Mertzeria, Edurne Arropadenda, Txomin Oinetakoak, Kloxxa Opari eta Arropa denda, Laino Haur Jantziak

Janaridendak

Agara Janaridenda, Artieda Janaridenda, Iantzi Arraindegia, Jaione Gozotegia, Labe Zar Okindegia, M^a Luisa Ugalde Janaridenda, Okane Harategia, Oroz Janaridenda, Pagola Harategia, Sarobe Okindegia, Erosle, Pakita Denda

Komertzioak

Bera Bideodenda, Bortziri Zerbitzu Teknikoa, Laia Musika Denda, Radio Bidasoa, Agara Arrantza-Ehiza, M^a Luz Sport, Zela Kirolidenda, Guria Drogeria, Igone Paperdenda, Alzuri Sukaldeko Tresnak, Manolo Burdindegia, Prieto Estankoa

Kontzesionariak

Bidasoa, Boan, Nissan, Renault

Zerbitzuak

Alberto Retegi Aholkularitza Fiskala, Manolo Lanz Kontabilitate Aholkularitza, Posta Kutxa, Urbikain Gasolindegia, Winthertur Aseguruak, Lirain Ileapaindegia, Begoña Zozia Esteticien, Osasun Etxea

Banatzailleak

Jose Ignacio Errandonea Edarien Salmenta, Manuel Taberna Edari Almazena

Tailerrak

Lantx Burdindegia, Semper Nekazari Tailerra, Bidasotarra, Ganix

LESAKA

Jatetxeak

Bereau, Irubide, Koxkonta, Xaturetxea, Zalaburu

Ostatuak

Aialde, Arranoa, Atxaspi, Batzokia, Ekaitza Kafetegia, Epi, Frontoia, Ipar Haize, Kamirero, Kattu, Olaberri, Saski Berri, Telebote, Txominea, Xaruta, Zialdo, Ziobi

Banketxeak

Caja Rural, BBV, Lankide Aurrezki Kutxa, Nafarroako Aurrezki Kutxa, Vasconia

Arropa Dendak

Deñe Jantzidenda, Goizueta Kirolak

Janaridendak

Calvo, Erosle, Ibaiondo, Irazoki, Fagoaga Harategia, Labekoak Goxotegia, Maite Arraindegia, Bittiria Harategia, Mendegia Harategia, Mikelajauregi Arraindegia, Neli Goxokidenda, Pepi Izozkiak

Komertzioak

Alzuri Elektratresnak, Belai Bideodenda, Orube Elektratresnak, Eneterreaga Elektrogailuak, Etxarte Erlojutegia, Ordoki Mobleak, Arretxea Drogeria, Auresku, Benedicto Agirre, Esther Ateak, Erdiko Errota Burdindegia, Gaia Belardenda, Legarra Liburudenda, Txirula Loredenda, Zarra Zapateria, Telletxea Estankoa

Ileapaindegia

Amets, Domingo Igarzabal, Kixkur, Otxoteko, Xabier

Zerbitzuak

Semper Autoeskola, Maldaerreka Bidai Agentzia

Banatzailleak

Arratzubi Ardotezia

Tailerrak

Lesaka Tailerra

Maika Ariztegi hirugarren, Behobia-Donostia laisterketan

Bertso afaria, bertzalde, hilaren 28an egingen da Herriko Ostatuan

IBAN ISASI

Ordu bat, 18 minutu eta 36 segundutako marka lortu zuen Maika Ariztegi, ehundaka emakumeren artean hirugarren postua lortuz, azaroaren 8an burututako Behobia-Donostia laisterketa famatuan. Lehendabizikoa Marina Prat izan zen eta bigarrena Carmen Sierra.

Eahurrengoan Atlantako Olinpiadetan irabazle ikusten dugun.


Bertso afaria

Azaroaren 28an, la-

runbata gaueko 9,30etan bertso afaria Iturengo Herriko Ostatuan. Partehar-tzaileak, Xebastian Lizaso, Xabier Euzkitze, Andoni Egaña eta Iñaki Murua bertsolariak izanen dira. Beraz, bertsolaritza munduan punta-punttan dabilzanak bilduko dira bertara.

Funtzionariak euskalduntzen

Udaleko zenbait funtzionari eta zinegotzi Donetebeko euskaltegian hasi dira beraien euskara maila hobetzen.



Maika Ariztegi korrikalariak sasoi ikaragarria erakusten ari da

Herri solidarioa?

Hiru herritar DYAn laguntzaileak dira eta gazteek festetarako eman dute sobratutako xoxa

JUAINAS

Ale hau irakurtzerakoan urak herria ez badu eraman behintzat, ez zarete gauza gehiegiz enteratuko. Hamabost egun hauetan Aurtizko bestak eta ondorioak ez badira, ez baita gauza haundi-rik gertatu.

Kuriosidadeak, bitxikeriak, bai. Bazenekien Zubietako biztanleen %1a baino gehiago DYako laguntzailea dugula? Hiru. Proportzio hiru gordez gero Malerrekan zenbat egonen lirarteke. Eta ez hori bakarrik, gazteek bi urte direla

bildu zuten diru sobrantea-ekin zer egin eztabaidatu ondoren, elkartu ziren hamarrek festetarako ematea erabaki zuten. Berririo afera guzia Udaletxera, hau da, herrian egin diren ospakizun guziak Udalatik ateri beharko dute? Solidarioak gara baina ez antolatzaileak. Eta solidarioak, noraino?

Zenbait gaztetan kanpotar hala herritar mugak nabarmentzen dugu, nere idurin sobera. Esateko, afro-dantzak direla eta ez direla, batzuk kanpotarrei kobratzea proposatzen zuten, EPAko bertze ikastaro



guzietan 'kanpotarrak' baldin badira ere. Portzintero, dagoeneko zurgintzakoa

hasia dugu, ondarrean irakasle bat kanpotik ekarri behar baldin badugu ere.

GOIZUETA

Maastricht-eko Tratatuari buruzko erreferenduma eskatu du Udalak

ESTEBAN AROZENA

Beste herri askotan gertatu den bezala, Goizuetako Udalak ere onartu berria du ahobatez Maastricht-i buruz Herri Batasunak aurkeztutako mozioa, hain zuzen, hitzarmen hortaz herriak bere iritzia erreferendumen bidez eman ahal dezan eskatuz. Onartutako mozioak dioenez, bozketa horri burutu aurretik herritar guztiei tratatuari buruzko informazioa eman behar zaie, horretarako kanpaina bat egin behar litzatekeelarik. Bestalde, akordio hau hartu zen biltzar berean Umore Onaren eta Argia aldiakariaren bi eskaerei baiezkota eman zien Korporazioak. Lehenengoan,



Umore Ona Elkarteak 100.000 pzta jasoko ditu Zaharren eta Dantzari egunengatik

100.000 pzta jasoko ditu elkarteak ospatu berri dituen Zaharren eta Dantzarien egunei laguntza bezela. Bestean, Argia eguna zela eta gure herrian burutu ziren ekintzetarako 25.000 pzta-tako dirulaguntza eman zion

Udalak aipatutako euskaldun aldiakariari.

□ **Abereen** zenbaketa (katastroa) abenduaren 10ean, goizean izango da Udaletxeko bulegoan. Abere jabe guzietan karneta eraman behar dute bertara.



Gimnasia ikastaroa

Azken alean euskaltegiaren eta EParen ikastaroen berri ematen genizuen. Ba, dirudenez, aurten jendeak laneko gogo ikaragarria dauka eta joan den asteaz geroztik beste bat gehiago martxandago: gimnasiarena.

Astean lau egunez burutuko den ikastaro honetan 30 emakumek parte hartzen dute, argazkian agertzen den Izaskun Bakerok betetzen duen elkarriko monitoriaren lana.

ARESO

Duela 800 urte eskuratu zituen fueroak Aresok

JUANA MARI SAIZAR

Aurten ospatzen dira 800 urte herriari fueroak eman ziola Santxo el sabio erregeak. Aresoko bizilagunak urtero lau soldata, alargunak adibidez %25 eta gizon bat bizi bazen etxean soldata osoa. Esaten dutenez gaztelu bat izan omen zuen Aresok, orain ez da horretaz ezertxo ere gelditzen, baina dakigunez liskarrak eta haserreak ugariak izan ziren Gipuzkoarrekin.

1144an, Areso erreka eta hautsia gertatu zen. Geroago Carlos Erregeari eskatu zitzaion bere pribiligioen kopia bat eta bertze herri Hoberen parerako erabilera eman zitzaion. Guzi hau diplomabatetan idatzia dago Tafallan 1445ko martxoaren 8an. Eta Juan II erregeak konfirmatu zituen 1462. urtean. Gainera desgrazia hauengatik, Bianako Printzeak, Juan Erregearen semeak ez zituen hurrengo 30



urteetako zergak kobratu eta urte hauek pasatuta ordain-

du behar zituen 50 urrezko florin zentsu modura.

Intsumisoen aldeko eskaerarekin bat egin du udalak

Leitzeko bi gazte epaituak izanen dira, horietatik bat abenduaren 12an

LEITZA

Leitzako Intsumisoen aldeko taldeak aurkeztutako mozioa, HB, EA eta Barbariaren aldeko botoekin eta UILko 3 zinegotzien kontrakoarekin onartu zen urriaren 29an.


Onartutako idatziaren lehen puntuan "derrigorrezko soldaduska salatzea, jende gehiago eraman ez dezaten bere bizitza zapuztuz tenorerik hobereanean" esaten da. Eraberean, "Udalak ejerzitoarekin dituen harremanak ("talla", etab...) moztuko ditu" eta "zinegotziak autoinkulpatuko" dira, "juiziorik izatekotan hauen alde deklaratu". Bere burua intsumisotzat hartu du Udalak eta intsumisioaren alde lanean hasteko konpromezua ere onartu egin du.

Larunbatero bilera

Informazioa zabaltzeko eta bidenabar sentsibilizazio kanpaina indartzeko asmoarekin, Leitzeko Intsumisoen Aldeko Taldea larunbatero biltzera saiasten da. Hau idazterakoan burutu asmo duten ekintzen berri zehatzik ematerik izan ez badute ere, denbora gutxiren barnean zehatz-mehatz adierazteko asmoa ere agertu dute.



Kiko Ortiz abenduaren 12an epaituko dute. Fiskalak 18 hilabetetako kartzelaldia eskatzen du. 1991ko ekainean egin zen intsumiso.



Txoma Barriola datorren urteko martxoaren 12an epaituko dute. Fiskalak 18 hilabetetako kartzelaldia eskatzen du beretzat ere.

Leitzeko Zinea martxan dago berriro ere. Ortziraletan gaueko 10,30etan, igandetan berriz, arratsaldeko 5etan eta 8etan.

□ **Aurrera** Elkartearen hiru milioi baino gehiagoko defizita estaltzen laguntzeko, udalbatzak ahobatez 1.500.000 pztatoko dirulaguntza ematea erabaki du.

□ **Leitzarako** Gasbidearen proiektua onartu du definitiboki Diputazioak.

□ **Jaione Iparragirre** Andoaindarra izanen da aurrerantzean elbarritu sikikoeekin ariko den ardurdun-monitorea.

□ **Eskolak**o pisu pare bat eskola aktibitateetarako erabiltzeko baimena eskatu da Guraso Elkarte, Eskola Kontseilu eta Klaustroak sinatutako idatzi baten bitartez. Plenoan eztabaidatu ondoren, gehiengoak arazoa mahai gainean uztea erabaki zuen, informazio gehiago eskuratu artean.

□ **Egunaren** 24 ordutan erabilgarri den anbulantzia berria martxan jarria du Diputazioak.

Larreei buruzko erabakia

Urriaren 29ko udal-plenoan, 1990ko uztailan hartutako erabakiari aldaketa hauek sartzea erabaki zen ahobatez:

- 1.- Baserritarrei, abenduan Katastroaren deklarazioa egitean, araudi berriaren fotokopia ematea.
- 2.- Deklarazioarekin batera, bere azientak zein larretara eraman behar dituzten esango dute.
- 3.- Larreetara sartzen diren azientak, etxeko seinalearekin markatuak egon behar dute.
- 4.- Larre bakoitzean dabilen azientetatik hartzen den dirua larre berera destinatuko da ongarritan.
- 5.- Abenduan 6 hilabete dituen azindak, larri bezala sartuko dira.
- 6.- Ataka guztiak itxita edukiko dira.
- 7.- Jarritako baldintzak bete gabe larreetara botatzen diren azientengatik multak jarriko dira.



BAZTAN

Kiwi Baztanen produkzioa uste baino haundiagoa izan da
ITGkoek diotenez, kiwiaren errendimendua behi kuadra batena baino ia doblea da

JOSEBA IGARABIDE

Kiwi Baztan-ekoek adierazi dutenez, 250.000 kilo kapazitateko kamarak prestatuta dauzkate kiwiarentzat eta ia-ia ttikia gelditu zaie, nahiz eta oraindik kiwi guztia ez dagoen bilduta. Prebisio baikorrenak gainditzen ari dira produkzio aldetik. Prezioa ona egitea espero dute eta komertzializazio zuzena gauzatu nahian dabilta, horretarako, beren kamarak eta kalitatezko produktoa bait dute. Aurten arras goxoa atera omen da kiwia, nahiz eta urte euritsu hau ez izan hortarako aproposena; ekaina aldean errate baterako, polinizatu behar zuenean, eguraldiagatik erleek ez zuten bete beharreko lana egiterik izan.

ITGkoek orain arte ez zuten garbi kiwia nekazaritza tradizionalaren alternatiba izan zitekeenik, baina ikerketak egin ondoren errentabletjat jotzen dute, %20aren errendimendua duelarik beren estudioaren arabera. Konparatzekotan, behi kuadra batek, %12ko errendimendua du kasu hoberenean.



Miguel Mindegia da Kiwi Baztan-eko gerentea

Arg. KARMELE

Abenduko kultur ekintzak

Baztango Kultur Zerbitzua abenduko kultur egitaraua prestatzen ari da balleko elkarteekin batera. Baztandarren Biltzarrak ere EKBren bitartez egitarauak prestatuxeak ditu.

Aintzinatzen ahal dugu zine emanaldiak hasteko gogoia duela Udalak, berak ordainduko duelarik zine salaren alkilerria. Pelikulen kontratazioa berriz, Baztandarren Biltzarra Elkar-teak egingen du, sarrerak eta ateratzen den gainerakoa Elkar-tearendako izanen delarik.

W ttipi-flash

Bertizko Teniente-txean 'Bisitarien Bilgune Zentrua' antolatzeko proiektua onartu du Diputazioak. Hiru solairuak bisitariak Parke Naturalaren informazioa eta bisitaldia gidatzeko moduan egokituko dira. Kostua 92,3 milioikoa da eta FEOGAKo dirulaguntzekin %45a estaliko da.

Esne kuotak banatu dira.

Azaroaren 17ko euri erauntsiak Elizondoko Mendinueta karrika erreka bihurtu zuen eta ikastolakoak klaserat ezin joanez gelditu ziren.



Dominika Etxandik 100 urte bete ditu

Urtebetetze egunean, azaroaren 16an, Elbete, Elizondo, Gartzain, Lekaroz eta Irurritako Arkupeak Elkartekoek eta Elbeteko alkate eta kargodunek omenaldia eskeini zioten. Dominika Almandozko Xokokobordan sortua da eta Martin Goienetxerekin ezkondu zen. Bortz seme-alaba izan ditu eta horietatik hiru bizi zaizkio, Pilar, Maritxu eta Felisa. 15 urtetan Beartzungo Maisterneko bordara gan zen bizi-tzerat eta geroago, duela 16 urte, Elbetera etorri zen familiarekin.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Eguberritako erosketengatik opari batendako txartelak

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

Herri Kiroletan mutilak txapeldun eta neskak bigarren

Azaroaren 7an Elizondon jokatu zen Nafarroako finalean

PABLO MENDIBURU

Hilaren 7an Elizondoko finalean neskek bai sokatiran zein froga konbinatuan bigarren postua lortu zuten, txapela lortzeko arras guti faltatu zitzaielarik. Aipatu behar gainera, neska batzuk bi modalitatetan parte hartu zutela eta mutilek sub-20ko txapela eskuratu zutela sokatiran, aurtengo denboraldiari akabera ezin hobea emanaz. Denak txapela eta bigarren postua irabaziz gain afaria izan zuten Sunbillan. Zorionak eta segi horrela.

San Martin besta

Ohitura dutenez San Martin hurrengo igandean Berroetarrek herri besta egiten dute, beren patroia- ren ohoretan. Aurten azaroaren 15ean ospatu zuten, zikiro-jatea eginez herriko frontoian. Lizaso eta Mendizabalek bertso saio ederra eskeini zuten eta bestak giro onean akautzeko, Joxeangel akordeolaria aritu zen.

□ **Zigatarrak** Zuraurre auzoan besta egiteko prest daude eta horrela, abenduaren 6an ospatuko da San



Akabaila ezin hobea eman diote aurtengo denboraldiari.

ZALDUA

Andreseko zikiro-jatea. Bazkalondoan, Bixente

akordeolaria giroa alaitzeko prest egonen da.

AMAIUR

10. URTEURRENA

Tfnoa.: (948) 45 04 00

DONEZTEBE

5 urtetako garantia sukaldetan
AENOREK homologatua



- VEGASA Sukaldeak
- Bainuak
- Mahaiak - aulkiak
- Elektrogailuak:

Miele
NEFF
AEG
Fagor

ZUGARRAMURDI

Egun Antimilitarista ospatuko da azaroaren 27an

Bertzalde, inguru turistikoa berpizteko asmoarekin aurkeztutako proiektua onartu da

KORO eta MARGARI

Azaroaren 27an ospatuko da Zugarramurdi Egun Antimilitarista, Zugarramurdi, Baztan eta Bortzirietako Intsumiso eta Antimilitarista taldeak antolatutako «Azaro Antimilitarista» izeneko ekitaldiei bukaera emateko.

Egun horretan herrian izanen ditugun ekitaldiak, honako hauek izanen dira: Arratseko 9etan eskoletan hitzaldia emanen dute Santi Kiroga objetoreak eta Iparraldeko bertze intsumiso batzuk. Ondoren jaialdia izanen da eta bertan "Tautautau" antzerki taldeak bere antzerki lan antimilitarista



Zugarramurdi-Saraldeko inguru turistikoa berpizteko asmoz zazpi milioi pezetatako aurrekontua (51.250 Eku) duen projektua dago

errepresentatuko du. Hau bukatu ondotik, Zugarramurdi txalapartariak eta "Pottoka" kantaria aditzeko aukera izanen da.

Intsumituen alde diru

pixkat ateratzeko asmoarekin zozketa bat egingen da. Eta Zugarramurdi gaudeenez, buztinazko sorgin eder bat (nola ez!) izanen da oparria.

Inguru turistikoa berpiztu asmoa

Udalak gan den azaroaren 10ean egin zuen bileran akordio garrantzitsu hau hartu zuen:

Mugaz bi aldeetako kolaborazioa bultzatzeko proiektua ikusi ondoren ahobatez onartu zen Sara eta Zugarramurdi inguru turistikoa, bi lezeak barne, berpizteko asmoarekin.

Proiektu hunen aurrekontua 51.250 Eku egingen da (7 milioi pezeta guti gora-behera).

Ondoko *ttipi-ttapa* batean berri hunen xehetasun gehiago emanen dugu.


OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI



KIWI BAZTAN, S. A.

FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENEKO SALMENTA



MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01




ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karretek ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleón
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

Ikastaro andana martxan daude

Igeriketa, dantza, kanta, txistua...

ALIZIA OLAIZOLA

Atsulai elkarteak konpondurik, azaroaren 7an hasi zen dantza eta kanta ikastaroa. Ainhoan, larunbat arratsaldero bi ordu terdiz Zugarramurdi eta Urdazubiko 25 haur biltzen dira. Abenduaren 20an Kanborat joanak dira ikuskizun bat egiterat, eta Alpeetarat ere haur haundienekin joatekoak dira. Larunbat atsaldetan ere, 2.30etatik 3.30etara haundinek dituzte dantza klaseak eta arratsetan 20 lagunez osatua den korala biltzen da.

Txistu ikastarokoak berriki hasiak dira baita Ainhoako dantza taldeko baten eskutik. Honetara, herriko hiru neska joaten dira.



Tikiak igeri ikasten

Arg: ALIZIA

Igeri ikastaroa

Azaroaren 10ean hasi dira Zugarramurdi eta Urdazubiko haurrak Ustarietzeko igerilekuran. Otsaila artio astearte goizero aritzen dire 40 minutuz.

Gazteen besta

Azaroaren 14ean, gazteenak zaharrenen kontrako futbito partidu batekin hasi zen, azken hauek irabaziz. Ondotik afaria eta dantzaldia Indianobaitan.

Gertaera bat

Urriaren ondarrean herriko eta Baztango langile batzuk, harginak eta zurginak, etxe baten konpontzen ari ziren Otsondon. Etxe hortan ez da inor bizi. Ortzegun batez gosaltzeko ardo botil bat edeki eta edan ondotik, soberatutakoa astelehenekoz utzi zuten, ez baitziren astelehena artio lanean aritu beharrak. Astelehenean gosaltzean, bi langilek ardo pittak edan zuten botila hartatik. Edan bezain laster izigarri gaizki jarri ziren eta Iruñako ospitalera joan behar izan zuten. Ez dakite zer gertatu izaten ahal den, ortzegunean ez bait zien inolako kalterik egin.

ERRATZU
OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU

TALLERES
ZALDAIN

Santiago 71, ☎ 580166 - ELIZONDO


NARBARTEKO
HERRIKO
OSTATUA

MENUAK eta KARTA

San Andres 1 • NARBARTE

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI



«**ZALDUBI**»
SUKALDE
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 58 05 62
IRURITA - BAZTAN

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan
ttipi-ttapa HARTZEN DUTE
ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE

EZKONTZAK

Jose Luis Arsuaga Arozena eta **Kristina Agirre Iturria**, Hondarribia eta Etxalarkoa, urriaren 17an.
Juan Fco. Iparragirre Taberna eta **Begoña Olasagasti Iparragirre**, Arantza eta Etxalarkoa, urriaren 31an.

Jose Antonio Elizalde Loiarte eta **M^a Soledad Arretxea Apezetxe**, Zubieta eta Iruritakoa, urriaren 31an.

Michel Ibarra eta **Isabelle Guilzu**, Senpere eta Sarakoa, azaroaren 13an.

Philippe Calvet eta **Pantxike Elizalde**, Sarakoak, urriaren 23an.
M^a Aranzazu Azpiroz Saralegi eta **Fco. Claudio Cortes**, Leitza eta Badajozkoa, urriaren 17an.

Juan Ignacio Arakues Mazizior eta **Miren Nekane Irastorza Aranburu**, Lesaka eta Donostiakoa, azaroaren 14an.

Jose Antonio Camino Agerrebere eta **Kontxi Inarreka Rekarte**, Amaiur eta Erratzukoa, azaroaren 21ean.

JAIOTZAK

Lidia Aranburu Elizalde, Elizondokoa, irailaren 18an.

Iratxe Perurena Arizaleta, Arizkungoa, azaroaren 4ean.

Ekhine Almandoz Arriada, Elizondokoa, azaroaren 6ean.

Jokin Urreaga Etxenike, Elbe-teakoa, azaroaren 9an.

Iñaki Zubiri Azanza, Arizkungoa, azaroaren 10ean.

Thomas Antton Despujols, Sarakoa, azaroaren 11an, Lesakakoa, azaroaren 12an.

HERIOTZAK

Rufino Zubieta Sanzberro, Etxalarren, urriaren 15ean, 76 urte.

Felisa Sanzberro Iribarren, Etxalarren, urriaren 27an, 92 urte.

Simona Gamiotxipi Goñi, Iruritan, azaroaren 2an, 78 urte.

Ana Maisterrena Legarraga, Elizondon, azaroaren 5ean, 83 urte.

Pio Aizpurua Perurena, Elizondon, azaroaren 6an, 78 urte.

Maria Uriz Berrade, Elizondon, azaroaren 9an, 93 urte.

Francisco Javier Urdaniz Legaz, Arizkunen, azaroaren 14an, 69 urte.

Koxe Kuan Tapia, Saran, azaroaren 7an, 93 urte.

Koxe Mari Tapia, Saran, azaroaren 7an, 90 urte.

Esteban Labaien Arraiago, Aresokoa, azaroaren 13an, 83 urte.

Bautista Ariztia Karrikaburu, Urdazubin, azaroaren 11an, 69 urte.

Mariano Juankorena Agesta, Sunbillan, azaroaren 7an, 72 urte.

Jose Zorzabalbere Artola, Beran, uztailaren 30ean, 69 urte.

Jose Lazkanotegi Mihura, Beran, abuztuaren 6an, 58 urte.

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

TFNOA: (948) 63 07 07

ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

BERA


Esther Mugerza: «euskararen egoera, kultura problema bat da»

Malerrekako Euskara Zerbitzuko teknikariarekin solasean

Bortz hilabete bete ditu oraintsu Malerrekako Euskara Zerbitzuaren teknikari postua eskuratu zuenetik eta balantze moduko zerbait egitea eskatu diogunean, gazi-gozen artean banatu ditu kontuak.

Lehen hilabete hauetan, Zerbitzua bera ezagutzera emateko helburua duen kanpaina batetan murgildurik dabil, eta berak aitortu digunez,

ez da batera erraza jendearengana mezu garbia ailegaraztea. Bertzalde, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatearen banean Euskara Batzordea osatu berri da eta Zubieta, Ituren eta Oitzko kontzejalak biltzen dira hortan gainerako enpresak modura.



«Arazoa hemen ez da hizkuntzarena bakarrik, arazoa soziolinguistiko-ekonomiko-politikoa da azken finean»

Zertan dago euskararen egoera Malerrekan?

Erabilera, ezagupena eta motibazioa kontutan hartuz, 1986an egindako neurketa batetan %86ak euskara erabiltzen zuela ateratzen zen. Gaur portzentai hori %50 eta %60a artean dabil.

Eta nola liteke 86tik honat euskarak atzera jotzea?

Arrazoiak zati batean hemendik kanpo euskarak zuen balioa bertako jendearentzat galdu egin dela uste izatean dago, hau da, euskara etxean ibiltzeko balio duela bakarrik pentsatzen da. Azken finean kultura

problema bat da. Baserria, lana, herria eta horrelakoen identifikatzen da euskara eta orain horrek porrot egin duenez, euskara bazterrera uzten ari da jendea.

Nondik hasi behar da lanean egoera hau moldatzeko?

Kontzientziazioa da bidea, baina nola? nola iritsi pertsonengana? Jendea hemen izugarri itxia da. Arazoa hemen ez baita hizkuntzarekin bakarrik, arazoa soziolinguistiko-ekonomiko-politikoa da azken finean. Herri hauek hustutzen ari dira eta datozenak turistak dira.

Eta Euskara Zerbitzuaren egoera zertan dago?

Zer nahi duzu esatea... etorri nintzenean dena zoragarria zen, alkateek animo handia ematen zuten baina gero hortxe bukatu zen dena. Udalek ez dute ia-ia aportazio ekonomikorik egiten. Trasmisio kanpaina ordaintzeko, adibidez, 53.000 pzta oraindu behar zuten 15 udalen artean, biztanlegoaren arabera batzuk mila eta zerbait. Ba oraindik udal batzuk ez dute ordaindu. Kontua da udaletan euskara ez dela inongo lehentasunetan sartzen.

Halere zerbait positiboa ere izanen da?

Ba begira, Euskara Zerbitzuak alkate eta kontzejalentsat euskara ikastaroa antolatu du. Hogeitabik eman zuten izena, ia-ia herri guzietakoak, Doneztebe, Ezkurra, Eratsun eta Saldiaskoak kenduta.

Bestalde zenbait idazkarik, Ituren-Zubietakoa, Beintza-Urrotz-Oitz-Donamariakoa eta Sunbillakoak alegia, hasi dira inprimakiak eta oharra euskaraz ateratzen. Bertizaranak erdaraz eta euskaraz egiteko akordioa hartu dute, eta Doneztebe, Elgorriaga, Saldias, Eratsun eta Ezkurran momentuz ezer ere ez kontu honetan.

Bertizko Konsortzioa, zonaldeko turismo eskeintza bultzatzeko asmoarekin osatu da

Eskualdeko Udal guztiak eta sektore pribatuko elkarte ezberdinak bilduko dira bertan

Hilaren 13an Bertizko Jauregian emandako prentsaurreko baten bidez ezagutzera eman zen Bertizko Turismo Konsortzioaren sorrera. Proiektu honek Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Udalak eta bortz enpresa elkarte bilduko ditu, inguruko turismo eskaintza hobetu eta zabaltzeko asmoarekin. Prentsaurrekoan agertu zenez, bi urte daramazkitez Udalak eta partikularrak proiektu hau prestatzen eta behin aintzinerara ateratzen gero "hagitz interesgarria eta onuragarria izan daiteke zonaldearentzat". Abenduaren 31rako Konsortzioa legalki osatzea espero da eta Nafarroako Gobernuaren laguntza ere ailegatuko dela uste da, idatzita deus ez badago ere.



Udal ordezkariak eta sektore pribatuko elkarteetako lehendakariak proiektuaren berri eman zuten Bertizko jauregian egindako prentsaurrekoan

Konsortzioa osatzeko lehen pausua, 1991ko irailan Servitur enpresak egindako bideragarritasun plangintza izan zen, 500.000 pezetako gastuarekin. Orain eraketa plangintza egiten ari da enpresa bera, ia 5 milioi pezetako aurrekontuarekin. Momentuz Udalek ordaintzen dute plangintza hau baina Nafarroako gobernuaren laguntza eta Futures planarena espero dira.

Udal ordezkariak onartu zuten, "Konsortzioak

ez ditu zonaldeko arazo ekonomiko guztiak konponduko, baina zenbait ate zabalduko ditu". Helburua, bertako errekurtsoak erabiliz kalitatezko turismo produktoa eskeintzea da, ahalegin horretan sektore publikoa eta pribatua uztartuz. Honek, "zonaldean egiazko ekonomi espektatibak" sortzea lagun dezake.

Bortz elkarte Udalekin batera

Eskualdeko udalekin batera, sektore pribatuko zenbait elkarte bildu dira buruz buru. Honela, urte

hasieran sortutako «Hiruak-bat» agroturismo etxeen elkartearekin batera, Hotel, hostel eta fonden elkarte, jatetxe elkarte, komertzio elkarte eta ostatuen elkarte osatu dira berriki. Bakoitzak bere zuzendaritza batzordea eta lehendakaritza aukeratu dute. Hotel elkarteko lehendakaria, Donamariako bentako Imanol Luzuriaga da; jatetxetakoa, Berako Ansoneako Juantxo Sanchez, Agroturismo etxetakoa Joxepi Mihura eta Komertzioetakoa Jose Antonio Mendia.

ELKARTEETAKO LEHENDAKARIEN IRITZIA



IMANOL LUZURIAGA
(DONAMARIAKO BENTA)
Hotel elkartekoa

Iniziatiba hauek baikortasunez ikusi behar dira. Gaur egun, krisi egoeran gaude baina beti irteera bat dago. Tunel honetatik ateratzen garenako prestatuak egon behar dugu etorkizunari profesionaltasunez aurre egiteko. Etorkizuna erai-ki egiten da. Datozen belaunaldien bizimoduak guk leku honetan hartzen ditugun erabakien baitan egon daiteke.

Baita ere, progresoa- ren aldeko apostua egiten dugu, progresoa ez bait dago ekologiaren aurka. Progresoaren apostua egiten dugu, baina kultura, folklore eta ekologia baten barnean; hau dena konpatiblea da. Ezin dugu bertzetokitan (Espainiako Mediterraneo kostaldean adibidez) izan dituzten erruak errepikatu. Gu ez gara inor, baina Udal eta instituzioen laguntzarekin lortuko dugu proiektu polit hau aintzineratzea.



JUANTXO SANCHEZ
(ANSONEA)
Jatetxe elkartekoa

Zein da konsortzioak saldu nahi duen produktua? Nere ustez, gauden zonaldea kontutan hartuz «Gastronomia eta lasaitasuna» da. Lasaitasuna inguru ekologiko batean, beti ere gure inguru eder hau zainduz. Gastronomiari dagokionez, kontutan hartu behar da gure zonaldeak gainontzeko euskal probintziekin dituen harremanak. Hor dugu Nafarroako baratza, Euskaditik nahi adina arrain ekar dezakegu, Frantzia aldetik sukalde teknologia ikasi dugu... Honara datorren jendea, inguru natural batean lasai egotera eta ongi jatera etortzen da.

Seguraski, gastronomi mailan bertako errezetak gehiago errespetatu behar dira, hemengoak ez den sukalde "internazional" hori alde batera utziz. Lurralde honetako produktuak janen ditugu eta lurralde honetako erreze- tekin prestatuak gainera.



JOXEPEI MIHURA
Agroturismo etxeetako elkartekoa

Duela urte batzuk, Nafarroako Gobernutik agroturismoa bultzatuz etorri zirenean, hemen haiek erraten zutena sinestea hagitz zaila zen. Guretzat arriskua zen erraten zutena praktikan jartzea, baina honetan sartu ginenak konturatu gara egia zela haiek predikatzen zutena. Hutsetik ateratzen ginen ekonomia aldetik eta inorrek ez zuen turismoaren mundua eza- gutzen; intentzio haundiakin hasi ginen, baina ikasteko aunitz genuen. Servitur-en laguntzaz ikasten joan gara poliki- poliki eta elkartzearen beharra ikusi genuen. Zenbait gorabeheren ond- otik urte hasieran elkartu ginen eta elkartzearen bi- dez zenbait gauza egiten hasi ginen; etxeendako aseguroak, extintoreak... Orain federazioaren esta- tutoak sinatu ditugu eta ilusioz ikusten dugu kon- sortzioarena. Lan aunitz egin beharko dugu.

Halere, erantzun ezber- dina jaso dute elkarte ez- berdinetatik. Honela, Ser- vitur-eko Eli Azkaratek dioenez hoteletako enpre- sariak izan dira proiektua baikortasun haundienaz hartu dutenak, eta eskual- deko hoteletatik erdia bai- no gehiago sartuak daude elkarteetan. Jatetxeetako enpresarietatik % 20a ere sartua dago elkarteetan. Erantzunik exkasena, komertziante eta ostatu- en aldetik etorri da (komertzio- en %5a eta eskualdeko lau ostatu, zehazki errateko).

Datorren urterako martxan paratu

1993rako ez du Kon- sortzioak bertze munduko perspektibarik. "Ibiltzen hasi eta Konsortzioa lau urteren buruan bidegarria izan dadila" dute helburu- tzat. Hoteletako ordezkari- riak Turismo feriara joate- ko asmoa agertu zuen.

Bertzalde Nafarroako Gobernuak eman dezakeen dirulaguntza ez dago argi oraindik. Prentsurrekoan egon zen Fernando Balduz Turismo sekzioko jefeak erran zuenez, "iniziatiba Udalenada eta Nafarroako gobernuaren laguntza fi- nantziarioa izanen du". Halere, Konsortzioak bere burua finantziatzeko gaita- suna izanen duenean, "Nafarroako gobernu- alde batera geldituko dela" gaineratu zuen.

Testua: AITOR AROZENA
Arg.: Joxemanuel IRIGOIEN

Lesaka eta Basaburua sub-20ean eta Sunbilla eta Bera emakumezkoetan txapeldun

Nafarroako Herri Kirol txapelketan, froga konbinatuan eta sokatiran

Azaroaren 7an burutu zen Elizondoko frontoian Nafarroako sub-20 eta emakumezkoen Herri Kirol txapelketak.

Hogei urtetik behitiko mutilen froga konbinatua- rekin hasi zen jaialdia eta bertan Lesakako taldea nagusitu zen, Berriozar, Sunbilla eta Arantzako taldeen aintzinetik.

Ondoren, emakumezkoen froga konbinatua egin zen, Sunbilla eta Basaburua-Baztanen arteko norgehiagoka polit batekin. Azkenean, sunbildarrak irabazi zuten, bigarren Basaburua, Lesaka hirugarren eta Berriozar laugarren.

Gero sokatira frogak egin ziren. Hogei urtetik behitiko mutiletan Basaburua-Baztan izan zen garailea, Amaiur, Lesaka, Bera eta Arantzaren aintzinetik. Berdintasun haundiko proba izan zen hau, eta horren lekuko, faborito bezala agertzen ziren beratarrak laugarren postuan gelditu zirela.

Emakumeen sokatiran ikusi ziren tiraldirik luzeenak eta ikusgarrienak. Azkenean, Berako taldea gailendu zen, Basaburua-Baztanekin borroka haundi baten ondoren. Hauen gibeletik Berriozar, Etxauriko Arana eta Sunbilla sailkatu ziren.



Lesakako mutilak froga konbinatuan txapeldun eta sokatiran hirugarren gelditu ziren

ZALDUA

Juan Jose Lopez, bigarren mailako aizkolarien txapeldun Donezteben

Norgehiagoka ederra burutu zuen Barberena faborito nagusiarekin

Juan Jose Lopez 23 urtetako gaztea nagusitu zen pronostikoaren aurka hila- ren 13an Doneztebeko frontoian burutu zen bigar- ren mailako aizkolarien txapelketan.

Faborito nagusia zen Jose Juan Barberena hasi zen dominatzen lehenengo zazpi enborretan baina bukaeran 15 segundutako aldea ateri zion Lopezek (14' 53" honek eta 15' 08" Barberenak). Hirugarrena,

Patxi Mindegia izan zen 17' 16" denborarekin eta laugarrena Patxi Larretxea 18' 23"tan. Bortzgarrena, Juan Jose Erdozia lesiona- tuaren ordeztaririk Mikel Letona suertatu zen, 20 minututan burutu zue- larik bere lana.

Sari banaketan, Jose Luis Diez, Nafarroako Kirol eta Gaztedi Institu- toaren zuzendaria, Miguel San Miguel Doneztebeko alkatea eta Gabriel Sarale-



gi, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren lehendakaria izan ziren.

HERRI KIROLAK

Herri Kirol Federazioaren Asanblea Orokorra hilaren 15ean aukeratu zuten



Azaroaren 15ean egin-dako botazioen ondotik, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren Asanblea orokorra osatuko duten pertsonak honako hauek izanen dira: Joxelu Retegi, Kiko Gartxitorena, Arantxa Martiartu, Jon Otxandorena, Andres Etxenike, Oskar Barber, Jon Aizkorbe, Santi Espinal, Mattari Altzuarde, Antonio Espelosin, Mikel Ibarrola, Panttaleon Errandonea, Joxe Mari Mujika, Donato Larretxea, Mari Lo-

ren Eugi, Floren Nazabal, Bixente Goia, Joxe Iturzaeta, Patxi Mujika, Ismael Oskoz, Juan Luis Altzugarai, Lorenzo Zubillaga, Eneko Karrikaburu, Joakin Ramirez, Andoni Garbisu, Juan Angel Erize, Joxe Urrutia, Iñaki Perurena eta Luis Mari Zelaieta dira

Honen ondotik, Herri Kirol federazioko lehendakaria izateko kandidaturak aurkezteko epea zabalduko da eta abenduaren 6an izanen da aukeratua.

ATLETISMOA

Lizuniagarako XII. Igoeran Anibal Rapado irabazle

Iruñeako Anibal Rapado korrikalari izan zen azaroaren 1en burututako XII. Lizuniagarako Igoeraren irabazlea. Bere gibeletik, bigarren postuan Jesus Mari

Calvo lesakarra eta hirugarrenean, Juan Manuel Iratzoki beratarra sartu ziren. Laisterketa hasieratik eskapo egin zuen Anibalek eta abantaila mantendu zuen.



Loiarte eta Etxeberria artean milioi bateko apostua

Abenduaren 20ean Doneztebeko eskolako frontoian

Jose Antonio Loiarte zubietarrak eta Felix Etxeberria sunbildarrak milioi erdi banaparatu dute datorren abenduaren 20ean eguerdiko 12,30etan Doneztebeko eskolako frontoian eginen den aizkol aposturako.

Egin beharreko lana, hogeit hamar metroko enbor moztea izanen da. Iaz apostu berdintsua egin zu-

ten bi aizkolari hauek, baina hamarna enbor ebakiz, eta Loiartek irabazi zuen juxtu-juxtu.

Bertzalde, Jose Bikondoa aizkolariak altura errekor berri batez arri nahi du Doneztebeko frontoian abenduaren 3an, 45 on-tzetako enbor bat 9,60 metrotara ebakiz. Gaur egun, Gabriel Saralegik du errekorra zortzi metrotan.

Hamabostaldiko jokaldiak



Jose Bikondoa 46 urtetako aizkolaria.

Baionan 9 metro t'erdira ez ofizialki enborra moztu ondoren, altura errekor ofiziala lortu nahi du abenduaren 3an Donezteben. 9 metro eta 60 zmtara. ekin nahi dio lanari.



Lizuniagarako igoeran informazio falta.

Pena da Lizuniagarako Igoera bezalako kirol proba garrantzitsu baten informazioa komunikabide guziei ez iristea. *ttipi-ttapa* ere ez zen erne ibili baina laguntza eskertzen dugu.

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Mugairen** pisu bat salgai prezio interesgarrian. ☎ 453299.

• **Elizondon** pisu amueblatua salgai. 130 m², 4 logela, 2 bainu eta 2 miradore. ☎ 580267. Eguerdiko 1ak eta 2ak artean.

• **Lesakan** pisu bat salgai. ☎ 637034 / 226747.

Lana

• **Iruñean** 18 urtetik goitiko neska euskalduna behar da. ☎ 174353 (2etatik 4etara eta 8etatik aintzineran).

• **EGA** duen neska batek Beran edo Lesakan haurrak zaintzen edo arratsaldetan Lesakan edo Igantzin euskarazko klaseak ematen (5-10 laguneko talde bati ematen len eginen luke. ☎ 637911 (Eduerne).

• **Neska** batek, Bera, Lesaka edo Etxalarren edozein lan eginen luke. Zaharrak edota haurrak zaintzen esperientzia badut eta euskaraz ikasten ari naiz. ☎ 635258.

Salerosketak

• **Lokal** bat salgai Berako San Esteban 37an. 70 m² + 40 m² sotanoan. Norbaitek denda edo bulegoa montatzeko nahiko balu, dena prest du. ☎ 630970.

• **Artzai-txakurkumeak**, euskal arrazakoak salgai. ☎ 604624.

• **Esne-tankea** berri berria salgai. ☎ 510498.

• **Honda** 250 CR Cross motoa salgai, 88koa. Gutti ibilia eta merkea. ☎ 452027.

• **Bigarren** eskuko bizikleta estatika bat erosiko nuke. ☎ 510405. Mari Joxe.

• **Sukalde** kalefaktorea salgai. ☎ 630562.

• **15 betizu** salgai. ☎ 514162.

• **Rieju** MR 80E motoa salgai, egoera onean eta merkea. ☎ 637214.

• **Razes**a karrera txirridula haundia salgai. ☎ 637337.

• **Egurrezko** kalefakzioa bigarren eskukoa eta akumuladore berria salgai. ☎ 635025.

• **Amasadora** erosiko nuke, bigarren eskukoa. ☎ 450945.

• **Honda** 600 Trail motoa eta kitarrarentzat 100 Wko anplifikadorea salgai. ☎ 630922 (Javier).

• **Trikitixa** salgai, oso egoera onean eta beltz kolorekoa. ☎ 510391 (gaez).

• **Mota** guztietako pike-teak salgai. ☎ 634107 (9'30eatik aintzineran).

• **Egoera** oneko kome-dorea eta logela konpletua salgai. ☎ 634151.

• **Intxaur** landare onak salgai Leitzan, koxkorak eta ederrak ere; metro batetik lau metrotarainokoak. ☎ 510227 (Lontxo).

• **Yamaha** RD 350 motoa salgai, prezio interesgarrian eta egoera ezin hobean. ☎ 630397 (Xatur-eguerdiz)

Denetarik

• **Lesakan** ingeles klaseak emanen nituzke. ☎ 637940.

• **Etxeak** kanpotik eta barnetik pintatzen ditut. ☎ 453245.

• **Etxeko** zakur bat erregalatuko nuke. ☎ 450337 (gaez).

• **Lesakan** toki onean denda traspasatzen da. Deitu 637401 ☎ra.

Harremanak

• **95. alean**, Berako bes-tetan nik emandako musu eta kariziengatik eskerrak ematen zuen anuntzioa gezurtatu nahi nuke eta idatzi dutenei, zerbait nahi baldin badute, hipokresiak utzi eta neregana zuzenean etor daitezela. "Hazkazala eta haragiaren tartean sartzen dena zikinkeria da". Hamid.

• **Elizondoko** Maxus-izorionak bere urtebetetze egunean. Ongi pasatzea eta berendu ona prestatzea espero dugu. Itxaso eta bere senide guztien partez.

• **Goizuetako** Josune eta Felix Loiarteri zorionak zuen urtebetetzeagatik. Zuen familia eta lagunak.

• **Labaiengo** Piliri: zorionak zure 23. urtebetetzean eta orain bezain jator eta alai segi. Leitzeko ilobak.

• **Irurritako** Pilarreri azaroaren 24ean urteak betetzen zituelako zorionak bere lagun N.N. partetik.

• **Goizuetako** Ramon Apezetxeari zorionak zure urtebetetze egunean. Bazkari on bat prestatuko dugu. Emaztea eta seme-alabak.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

Tfnoa:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

KOLORETAKO ERREGALOAK!!



Hastekoz

DEBALDE

TELEBISTA BAT edozein

RENAULT *

modelo erosteagatik

* Stock-ean dauden ibilgailuak

Eta gainera

BALDINTZA

EZIN HOBEAGOTAN

Zatoz zurearen bila



ZURE BEHARREN ARABERAKO
FINANTZIAZIOA ESKAINTZEN DIZUGU



RENAULT

Sarea

- Baztan: P. Garmendia – Elizondo
- Malerreka: Talleres Santesteban – Doneztebe
- Bortziriak: Semper Anaiak – Bera

Pisuak salgai ZUBIETAn



Hemendik gutxira bukatuak egonen dira. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta ganbara ederra. Propanozko kalefakzioaz hornituak. 9.100.000 pezetatik aurrera.

Kredituei buruz informazio zabala Nafarroako Aurrezki Kutxa-CANen

Argibideak: (943) 426244



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak

**AZAROANESKAITZA
BEREZIAK MOBLETAN**

*Nahi izanez gero,
instalazioaz arduratzen gara.*

Eskatu baldintzak

ZURE BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA:

x MOBLEAK
x GRIFERIAK
x MANPARAK

x AZULEJOAK
x SANITARIOAK
x OSAGARRIAK

*Prempuestoak
Konpromisorik
gabe*

**Juan Arana, 3
Tfnoa eta faxa:
(943) 61 17 67**

IRUN